# LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKO JAURLARITZAREN, NAFARROAKO GOBERNUAREN, ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIEN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO ESPARRU-HITZARMENAREN INGURUAN, 2026-2029 EPEALDIAN SEI ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANAREN OINARRIAK EZARTZEA HELBURU DUENA.

**30/2026 LT – LGAKZ**

**NBNC_CCO_883/26_02**

## I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak legezkotasun-txostena eskatu dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honi, goiburuan aipatutako esparru-hitzarmenari buruz.

Eskabidearekin batera, honako dokumentuak eransten dira:

- ✓ Oroitidazkia
- ✓ Aholkularitza Juridikoaren txostena
- ✓ Esparru-hitzarmenaren behin betiko zirriborroa
- ✓ Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena

Eskumen organikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.i) artikuluan xedatutakoaren arabera egin da txosten hau, Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 14.1.c) artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T80CZ-RW12
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** XABIER UNANUE ORTEGA | 2026/03/24 15:20:27

Era berean, aipatzekoa da, txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 7.1.c), 9 eta 13.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera egin dela.

## II. LEGEZKOTASUNA

### 1.- Xedea.

Esparru-hitzarmenaren lehen klausularen arabera, honako helburua du hitzarmenak: Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzea eta alde bakoitzak bereganatzen dituen konpromisoak arautzea.

Testuarekin batera doazen memorien edukiarekin bat eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honetan dauzkagun aurrekariekin bat etorriz, txosten honen mami den hitzarmenak duela bi hamarkada sinatzaileen artean hasitako lankidetzari bidea luzatuko dio.

Lankidetza hori hitzarmen espezifikoen edo esparru-hitzarmenen bidez artikulatu da batzuetan, eta beste batzuetan, programa-kontratuen bidez, betiere Euskaltzaindiari finantza-egonkortasunaren bermea emate aldera eta zereginak behar bezala burutzeko moduan egon dadin, kontuan izanda Euskaltzaindiako Estatutuen 27.a) artikuluaren arabera erakundea funts publikoen bidez mantentzen dela nagusiki.

Kasu honetan, aurreko epealdian bezala, diru-laguntzei buruzko edukia duen esparru-hitzarmen baten figura aukeratu da -programa-kontratua baino figura egokiagoa-, eta oraingoan Nafarroako Gobernuak ere bat egin du ekimen honekin.

### 2.- Eskumena.

Alderdiek hitzarmena sinatzeko duten eskumenari dagokionez, errepikapenak saihesteko, txosten juridikoan esandakoari lotzen gatzaizkio, haren arrazoibideekin bat gatoz eta.

**3.- Hitzarmenaren izaera juridikoa.**

Alderdi sinatzaileen arteko lankidetza Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluan araututako lankidetza-hitzarmenen forma hartzen du. Azken artikulu horrek honako hau ezartzen du: *«Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera».*

Hala, 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluaren arabera, *«a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko».*

Hain zuzen ere, aipatutako 40/2015 Legearen 48.1 artikuluak adierazten duenez, *«Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, zeinek bere eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahalko dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea»*. Artikulu horren 3. puntuan adierazten denez, *«Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen lagundu, eta aurrekontu- egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako legeria bete».*

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 54. artikuluak honako hau ezartzen du: *«Dekretu honen ondorioetarako, eta legearekin bat etorrita, hitzarmenak dira administrazio publikoek, organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek, edo haiei loturikoek edo haien mendekoek, edo unibertsitate publikoek egin eta ondorio juridikoak dituzten akordioak, euren artean egindakoak zein zuzenbide pribatuko subjektuekin egindakoak helburu komun baterako».*

Kasu honetan, administrazioen arteko hitzarmena, batetik, Euskaltzaindiak -euskara kontuetarako aholku emailea den herri-erakundea- eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek sinatzen dute.

Hitzarmen-proiektua bera izaera juridiko-administratiboko hitzarmen gisa aurkezten da (hamargarren klausula) eta hitzarmenean ez da interes ekonomikoa nagusitzen, baizik eta interes publikoa, lankidetza eta elkarlana xede. Hori dela eta, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, zehazki, lege horren 6.1 artikuluan zerrendatutako baldintzak betetzen direlako.

Kasu honetan esparru-hitzarmenaren figura erabilgarria da; izan ere, haren bidez, esku hartzen duten alderdiek beren eskumenen erabilera modulatzen dute, eta elkarri eragiten diote, interes publikoko helburuak lortzeko ahalegin partekatuak dakarren abantaila lortzeko.

Eta hala gertatzen da kasu honetan, non esparru-hitzarmena sinatzen baita aldeen arteko lankidetzarako oinarri orokorrak ezartzeko eta alde bakoitzak bereganatzen dituen konpromisoak arautzeko, xede argi batekin: Euskaltzaindiaren jarduera suspertu eta bermatu.

**4.- Hitzarmen-proiektuaren izapideak**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50. artikuluak hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak zerrendatzen ditu, eta honako hau adierazten du:

*«Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea».*

Espedientean barneratu dira dokumentu horiek, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuan eskatutakoak ere.

Era berean, nahiz eta oroitidazkian azaldu ez dakarrela inolako eragin ekonomikorik, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen 22.1 a) artikuluan jasotakoaren arabera, aldez aurreko fiskalizazio-txostena eskatu beharko zaio Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, argia baita esparru-hitzarmenaren eragin ekonomikoa.

**5.- Hitzarmenaren edukiaren azterketa.**

Edukiaren azterketa materialari dagokionez, hitzarmenak aldeen deskribapena, aurrekariak eta 12 klausula jasotzen ditu.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikulua gogoratu behar da, hitzarmenen gutxieneko edukia arautzen baitu. Xedapen horren arabera, funtsezko edukiak honako gai hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

*«a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.*

*b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.*

*c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.*

*d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denborabanaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.*

*e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.*

*f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta plantea daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.*

*g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.*

*h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea».*

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak hitzarmenen edukiari buruzko alderdi berri bat arautzen du 33.4 artikuluan, haiek kudeatzeko erakunde pertsonifikatu bat ezartzeko beharrari buruzkoa.

Kasu honetan, hitzarmenak honako hauek jasotzen ditu:

- Sinatzen duten subjektuak eta haien gaitasun juridikoa, bai eta sinatzaileek jarduteko duten eskumena ere, Hitzarmenaren hasieran jasotzen dira.

- "Aurrekariak" atalean adierazten da zergatik jotzen den beharrezkotzat hitzarmena sinatzea.

- Hitzarmenaren xedea lehenengo klausulan ezarrita dago.

- Hitzarmenaren bigarren klausulan beste lurralde batzuetako administrazio publikoei biltzeko aukera ematen zaie.

- Hitzarmenaren hirugarren klausulan hitzarmenaren indarraldia jasotzen da eta bertan ezartzen da lau urtekoa izango dela, eta, berariazko akordio bidez, epe bererako luzatu ahal izango dela, 40/2015 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

  Txosten honen sinatzailearen iritziz, arrazoi sistematikoak eta araugintza-teknikako arrazoiak direla eta, klausula hau hitzarmenaren amaieran jasotzea egokiagoa izango litzateke (Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko 28. jarraibidearen arabera, 78/2023 ebazpenak onartua, uztailaren 28koa, EHAA 2023/08/07).

- Alderdien konpromisoak eta betebeharrak laugarren eta bosgarren klausuletan jasotzen dira.

  Zehazki, bosgarren klausulan, Administrazio publiko sinatzaileen konpromisoen ingurukoa, jasotzen da *«Hitzarmen hau sinatzen duten administrazio publikoek agintzen dute behar diren neurriak errazteaz arduratuko direla, Euskaltzaindiak hitzarmen honetan ezarritakoa gauzatzea izan dezan»*. Txosten honen sinatzailearen iritziz baieztapen hori edozein kasutan seigarren klausulan jasotakoagatik mugatuta dagoela argitzea komenigarri izango litzateke, aurrekontuen muga baitago.

- Diru laguntzen kopuruaren zehaztapena nola egin azaltzen da seigarren klausulan.

Klausula honetan jasotzen da urtero erakunde bakoitzari egokituko zaion aurrekontu kreditua proposatuko dela, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, dirulaguntza izenduna eta urte anitzekoa delako, 2025-2028 epealdirako.

Aurreikuspen horrek ez du bat egiten Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.d) artikuluak dionarekin, urtekako denbora banaketa eskatzen baitu:

«*Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:*
*d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denborabanaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera».*

Bestalde, dirulaguntzaren aurrekontua urtero zein irizpideren edo aldagairen arabera finkatuko den zehaztea komenigarria litzateke.

- Akordioaren zaintza- eta jarraipen-mekanismoak hitzarmenaren zazpigarren eta zortzigarren klausuletan jasota daude.

- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak bederatzigarren klausulan ezartzen dira.

Hala ere, ez-betetzeen kasuan aplikatu beharreko ondorioak ez dira hitzarmenean jasotzen, bederatzigarren klausula horretan suntsiarazteko arrazoiak baino ez baitira ezartzen; beraz, egokitzat jotzen da alderdi hori osatzea 40/2015 Legearen 49.e) artikuluaren arabera.

Ildo horretan, ez-betetzeak suntsiarazteko arrazoi izateaz gain, komenigarria litzateke hitzarmenean finantzaketa handitzeko edo murrizteko mekanismo

bat sartzea, finantzatutako erakundearekin hitzartutako helburuen betetze-mailaren arabera.

- Hitzarmenaren izaera administratiboa hamargarren klausulan ezartzen da.

- Hamaikagarren klausulan hitzarmenaren kudeaketa administratiboaren ardura zehazten da.

- Hamabigarren klausulan izenpetzea jasotzen da.

Aldiz, hitzarmenean ez da jasotzen hitzarmena bera aldatzeko aukera, beraz, kasu horretan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.g) artikuluan jasotakoa aplikatu beharko da: *«g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko».*

Hitzarmenak hura kudeatzeko pertsonifikatutako erakunde bat izateko aukera jaso beharrari dagokionez, esan daiteke kasu honetan hitzarmenaren zazpigarren klausulan aurreikusten dela jarraipen-batzorde bat eratzea, eta hori erakunde pertsonifikatutzat jo daitekeela Euskal Sektore Publikoaren Legearen ondorioetarako.

Ondorioz, hitzarmenaren edukiak araudian eskatutakoa betetzen du, konpromiso ekonomikoen urtekako denborabanaketa eta ez-betetzeen ondorioei buruz adierazitakoa alde batera utzi gabe.

**6.- Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren edukiaren azterketa.**

Aipatutako 144/2017 Dekretuaren 62. artikuluaren arabera, Autonomia Erkidegoaren izenean hitzarmenak sinatzeko adostasuna adieraztea Lehendakariak egingo du.

Ildo horretatik, espedientean barneratu da Gobernu Kontseiluak hitzarmena onartzeari buruz egindako erabaki-proposamenaren zirriborroa.

Erabaki-proposamen hori egokitu beharko da Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 ebazpenarena erabakira, zeinaren bidez lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen baitira. Zehazki, 85. jarraibidearekin bat, izenburuan Gobernu Kontseilukoa dela adierazi beharko da eta azalpen-zatia ixteko: *«Horren ondorioz,... proposatuta, Gobernu Kontseiluak,...(e)ko...aren...(e)ko bilkuran, hau ERABAKITZEN DU:».*

## III. ONDORIOA

Egindako oharrak gorabehera, hitzarmen-proposamenaren aldeko txostena egiten da, aplikatu beharreko ordenamendu juridikoarekin bat datorrela iritzita.

Hauxe da nire txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.